

ERLEAK

Zomorrarik bada gure baserri inguruan; euretariko asko seiatzak dira. Batzuk egaz dagite, beste batzuk ez. Auek lur ezalean bizi dira, aiek lur barruan. Gure soro ta beresietan ugari dituzu sator, kirikio, euli, mitxeleta, pipi, arkakuso, armiarma, txingurri, usan, ipurtargi, karramarro, eltxo, sits eta olakoak. Erlea ere mamutxa edo zomorroa duzu. Aueta-tik batzuk mesede galanta egin oi dute; beste batzuk kalte polita ere bai,

Doiñu: «Goizuetan bada gizon bat... »,

Eder artean eder ditugu
etxe aldean erliak...
Zer-nai ordutan gozaten gaitu
urre dirudin eztiak,
mamutz txikiak joran gartsuan
osa oi duten gorriak.

Oroi dudala, aspaldi danik
dugu guk erletegia,
egutera so, muiño ertzean
gure aitonak jarria:
urtero bertan jasoten dugu
upeltxo bete ezta.

Lau erlauntz ditut, laurak berdiñak.
Ango iskanbilla Linero!
Zoraturikan egon oi naizu
tinkorik bertan goizero!
Jarraibidea damakigute
guk ikasi nai ezkeru.

Irutariko erleak dauzka
erlauntzak bere barnean:
batzuk leiatsu __nolako auna! — (1)
beti dabiltza lanean;
erle-mandoak ez dagi ezer,
erregiña aur-giñean.

Erla-emea bakarra duzu,
ego-motz ta sabel- luze;
zakarra duzu erle-mandoa,
langille txikik naibeste,
ogei bat mulla erlauntz batean
ba dituzu batez beste.

Bakoitzak ditu bere izkilluak:
langilleak du eztena,
norbaiti sartzen ba dio ezin
iñolaz ere atera,
eta azkenik erioak dizu
eraman gaitz-itzalera.

Erla-emeak miztoa dizu,
baiña kakorik gabea,
iñori sartu ezker ere
errez du ateratzea;
erle-nagiak ez du izpirik
ez du pozoikor ziztea.

Erle-alperrak bizi osoan
ez digu lanik egiten;
ta erregiña bere arloan
zaizu bakarrik saiatzten;
ari eta ari, urte luzeetan
arraultzak dizkigu jartzen.

Langilletatik sail batek digu
erregiñea zainduko;
batek atea, bestetzuk dute
lore-autsa ekarriko;
besteak, berriz, leia bizitan
ura dekarte eztirako.

Eguzkitara dauzkat erlauntzak;
bero aundia danean,
aize-emaka dituzu batzuk
erlauntz-ataka aurrean,
ola-gizonak diruditela
izerdiz auspo lanean.

Ezautzen naute? Ez dakit. Baiña,
ez ditut inoiz uxatzen;
uda ta negu, bear danean,
naiz urbil xamar ibiltzen;
alarik ere, nausi zurrian,
ez naute inoiz eztentzen.

Erlauntz urrean uxa ezkerro,
bizi-sumin dira jartzen,
eta beingoan oartu gabe
miztoz zaituzte ziztatzen;
osterantzean pake-zaleak
zaizkit unoro izaten.

Eztia atera gura ba diet,
pekorotz errez nik ketzean;
zorabioan sartu ezkerro,
bat-batez dira lelotzen,
eta ezeren errisku gabe
eztia diet lapurtzen.

Nere erlauntzak iruna egoitz
dituzte: or lantegia
erregiñak du oroz aurrena,
or gero ezti-tokia;
eregiña ara sartu ez dedin
erdian du sare itxia.

Sare ortatik —oi jakituri! —
erle-langillak dira pasatzen,
ez erregiña, aundia baita,
ez zaizu ortik aratzen;
kartzelan dagi bere bearra,
iñoiz ez dala aspertzen.

Ene erle-mulko! Sortaldera du
bere urrezko lantegi!
Goizez goiztik du geienetan, bai,
erraiñu-jaurtika euzki:
isla dirudi ekuru gabe,
beroakin naste argi.

Goxo-goxoro daude erleak
argi-izpitan egabera;
goiztar epela arnas ondoren
denak dagite lanera,
egun osoan —oi gizon alper! —
izanik leia berbera.

Uri langille, pare gabea,
ez duzu emen nagirik,
erle-mandoak mokoka laster
ildakoak izan ezik:
gizakiontzat ba dugu emen
ikaskai guen ederrik!

Iraillez diet nik ateratzen
erraiian duten eztiā;
ez diet, baiña. osorik kentzen
duten ezti orrazia,
neguan ere izan dezaten
bear duten janaria.

Izaki pitin, erle maiteak!
poza zerate neretzat.
Egin arloan eredugarri
zaudete beti guretzat.
Zuok goretsi naiean dut nik
bukatzen ez dan kanta bat.

